



**Gogoratzen al zara zein den esan duzun
azken gezurra? Nori esan zenion?
Zergatik? Inork gezurretan
harrapatu al zintuen?**

Gezurtiarena

1

—A zer otso pila ikusi nuen atzo!
—Zenbat ikusi hituen? Lau?
—Gehiago, aita! Gehiago!
—Zortzi?
—Gehiago, aita! Gehiago!
—Hogei?
—Gehiago, aita! Gehiago!
—Berrogeita hamar bat?
—Ehun ere bai! Ehun baino gehiago ziren,
askoz ere gehiago!
—Geldi, zerbait entzun diat!

2

—Zer soinu da hori, aita?
—Zubipetik pasatzen den urarena. Bete-
betea zetorrek ura.
—Eta zubia... segurua da?





- Oso segurua ere. Ume gezurti baten pisuak bakarrik hondoratuko likek.
- Zera... nik aita...
- Bai, seme?
- Ez dut uste ehun otso baino gehiago zirenik.
- Ura bete-betea zetorrek!
- Ehun baino gutxiago ziren.
- Emadak eskua.
- Hogei baino gehiago ziren.
- Bizkarrean hartuko haut.
- Hogei baino gutxiago ziren. Agian lau...
- Gezurretan segitzen baduk, zubipeko urak eramango hau!
- Bakarra zen, aita.
- Kili-kolo zagok zubia, esadak, mesedez, egia.
- Seguru asko enbor bat zen.
- Orain esan duk egia! Pasatu diagu zubia!
- Enborra izango zen, baina otso bat ematen zuen!

1. ADIERAZI BAIEZTAPEN HAUETATIK ZEIN DIREN ZUZENAK "X" BAT EGINEZ.

- A. ☐ Aitak hasieran ez dio igarri semeari benetan ala gezurretan zebilen.
- ☐ Aitan hasieratik igarri dio semeari gezurretan zebilela, baina konturatu ez balitz bezala jarraitu du pixka batean.
- B. ☐ Aitak, semeak egia esan dezan, gezur txiki bat asmatu du.
- ☐ Aitak ez daki seguru semeak zer ikusi duen, eta galderak eginez jakin du azkenean egia.
- D. ☐ Azkenean, semeak aitortu du enbor itxurako otso bat zela berak ikusi zuena.
- ☐ Azkenean, semeak aitortu du otso itxurako enbor bat zela berak ikusi zuena.

2. BILATU HITZ EGOKIA

Gezurak esaten dituenari: gezurti esaten zaio.

Asko lotsatzen denari: _____ esaten zaio.

Erraz beldurtzen denari: _____ esaten zaio.

Negar asko egiten duenari: _____ esaten zaio.

Asko gaixotzen denari: _____ esaten zaio.

3. IRAKURRI DUZUN IPUINA HIRU ZATITAN BANATU DUGU, GOGORATU ZER GERTATZEN DE ZATI BAKOITZEAN, ETA HAURRAREN SENTIMENDUEKIN BAT EGITEKO IDATZI DAGOKION ZENBAKIA . "1, 2 edo 3"

a. Umea zalantzan hasten da, eta beldur pixka bat dauka. ☐

b. Umea guztiz beldurtuta dago eta egia esaten du. ☐

c. Umea seguru eta ausart sentitzen da. ☐